

#JesusGureanEreBidelagun

NERABEZARO – AURREKOAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Zalantzaz beteriko ueña bizi eta taldearen bilerei noiz ekingo diegun ez dakigun arren, ez diogu Pazko aldia bizitzeari uko egiterik nahi.

Itxaropenez, poztasunez... beteriko aldia. Gure bihotzetan finkatu egiten den aldia da, gertatuak gertatu, Jainkoa beti izango delako gurekin, ez gaituelako inoiz bakarrik utziko eta, era batera edo bestera, bidelagun eta gertuko dugulako!

Konfinamendu aldi honetan, makina bat gauzak jarri du arriskuan gure itxaropena. Ezin dugu etsi eta irabazi egin behar diogu jokaldia itxaropenik-ezari.

Horregatik, trebetasun taktikoan oinarritutako jolasa proposatzen dizuegu, bizikide ditugunekin, “aisialdian” gurekin izaten direnekin... egiteko. Geure taula eta fitxak prestatuko ditugu ([Sakatu hemen jarraibideak ikusteko](#)).

Jokoa amaitzeaz batera, ondorengo galderen erantzunen inguruan jardun dezakegu taldean:

- Nola azalduko zenuke hainbat aldiz esaten den “itxaropena da gaitzen den azkena”, esaldiaren esanahia?
- Nola azalduko zenuke zer den itxaropena?
- Zein itxaropen duzu edo zer espero duzu ilusioz aldi honen osterako?
- Jokoaren ostean, esango zenituzke buruz Itxaropena dakarten gauza guztiak eta zergatik? Eta zerk dakarren etsipena eta zergatik?

#JesusGureanEreBidelagun

Ez gaude bakarrik, beti dugu bidelagunen bat gure bizitzako ibilbide honetan.

Sakatu hemen bideoia ikusteko



Senideak, adiskideak... Jesus bera, ditugu lagun, beraiek baitira askotan aintzat hartu behar ditugun eredu.

Jar diezaiokegu izen eta aurpegiak ibilbide honetan bidelagun izan ditugun pertsona horiei?

Neska-mutil bakoitzak bere ibilbidearen murala egin dezala. Jaio zirenetik gaur egunera arte. Eta, gero, batera jar dezatela taldekideek, familiako kideek,... ikus dezaten.

Seguruena, ibilbide honetan –pertsonaren arabera luzeago ala laburragoa-, nire oinatzek gainera, beste oinatz ugari izango da, lagun egiten digutenen, gurekin daudenen, gure bizitzan arrastoa uzten dutenen oinatzak.

Marrak ditzatela oinatzak eta idatz dezatela beren bizitzan arrastoa utzi duten eta uzten ari diren pertsonen izenak.

Pertsona horien arrastoak egin... beren izenak idatzi eta murala egin; gero argazkia atera eta taldeari erakutsi.

Arrasto horietako bakoitzean Jesus ere badago. Berak ez gaitu inoiz bertan behera uzten, beti dago gure artean beste lagun batzuen bitartez.



Bilerari amaiera emateko, otoitz hau egingo dugu elkarrekin:

ZURE ATZETIK JARRAITU NAHI DUT

Jesus, adiskide ona.
Atsegin dut
Zu bezala bizitza.
Eredu izan nahi zaitut,
gero eta gehiago
zure antzeko izateko eta
Jainkoarengandik hurbil egoteko.
On eginez bizi izan zinen,
Jainkoaren benetako aurpegia
agertzera emanaz,

maitasuna nola bizi erakutsiz,
behartsuei lagunduz,
barkatuz eta
barkatzera bultzatuz,
otoitz egiten eta Jainkoari 'Aitatxo-Amatxo'
deitzen irakatsiz,
Zuzentasun eta Bakearen Erreinua
hots eginez.
Zeure bidetik joanez bizi nahi dut, eman
indarrak hori lortzeko.



MARCELO A. MURÚA